

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### **Behin betiko onartzea herriko jaiak ospatzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen udal ordenantza zehatza**

Herriko jaiak ospatzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen ordenantza onartzeko hasierako erabakia, udalbatzak 2016ko apirilaren 20ko bilkuran emana, jendaurrean jartzeko epea amaiturik ez da erreklamaziorik aurkeztu, epe horretan, ordenantzaren aurka. Hori dela-eta, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, bat etorritik apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49 c) artikuluan xedatutakoarekin.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da behin betiko erabakia, eta argitaratzen denetik aurrera aplikatuko da.

Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratu ondorengo egunetik hasita, halaxe agintzen baitu Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 26/1998 Legeak 46. artikuluan.

Horrek guztiak ez du eragozten egokia deritzon beste edozein errekurtsio ere aurkezterik.

#### HERRIKO JAIK OSPATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA ZEHATZA

##### **1. artikulua. Dirulaguntzen xedea**

Ordenantza zehatz honen bidez finkatzen dira Zigoitiko herrietako jaiak eta/edo erromeriak finantzatzeko dirulaguntzen oinarriak, hauek lortzeko:

- Herritarrek parte hartu dezaten herriko jaiak antolatzen eta horietaz gozatzeko.
- Elkarbizitza aberasten laguntzen duten jolas eta kultura jarduerak egitea sustatzea.

##### **2. artikulua. Erakunde onuradunak**

Dirulaguntza horiek jaso ahalko dituzte Zigoitiko udalerriko kontzejuek baldin eta legez eraturata eta erregistraturata badaude.

Erakunde eskatzaileak egunean izan beharko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eskaera aurkezten den momentuan bertan eta prozesu osoan zehar (emakida eta ordainketa).

##### **3. artikulua. Deialdiaren publizitatea**

Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratuko da, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez. Eskaera aurkezteko epea ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hasiko da kontatzen.

##### **4. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura:**

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko prozedura norgehiagoka araubidez egingo da.

##### **5. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen programak**

Orobat, auzokoen partaidetza eta gozamina dakartzaten jolas eta kultura programak lagunduko dira diruz. Ez dira lagunduko lunch, afari edo antzekoetarako gastuak.

## 6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

Laguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskabidean eta harekin batera aurkeztutako agirietan adieraziko datuak balioztatuko dira.

Dirulaguntzak programaren kostuaren eta hura partez estaltzeko dauden baliabideen araberakoak izango dira. Garrantzitsua eta kontuan hartu beharrekoa izango da sustatzaileak baliabide propioak sortu ahal izatea edo baliabideak beste administrazio publiko batzuen bitartez lortu ahal izatea.

Entitate bakoitzeko gehienez lagundu daitekeen zenbatekoa aterako da banatetik zati berdinetan aurrekontu partida eskaera kopuruan; dena dela, ez da inolaz ere lagunduko justifikatutako gastuaren ehuneko 100 baino gehiago.

Aurrekontu partidan kreditu gaidikina badago, diruz lagundu daitekeen gehienezko zenbatekoak gaiditu ahalko du emaitza hau: partidaren zuzkidura zati eskaera kopurua.

Hala ere, udalak izapidetze berezia eman ahalko die interes bereziko hainbat programari, baldin eta dirulaguntzen zenbateko osoak ez badu gaiditzen Zigoitiko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu aplikazioetan helburu horietarako esleitutako zenbatekoa.

Onartutako dirulaguntza berriro aztertu ahalko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.

## 7. artikulua. Eskaera aurkeztu eta justifikazioa egiteko epea

1. Eskabideak eta justifikazioa, zortzigarren oinarrian aipatzen diren agiriekin batera, aurkezteko epea abenduaren 30era arte izango da.

Udalaren sarrera erregistroan aurkeztuko da, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 38.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

2. Dirulaguntza horiek eskuratzeko dokumentazioa aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

## 8. artikulua. Dokumentazioa

1. Eskaera ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: froga balioa daukaten fakturak edo kontabilitate agiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak).

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko datu hauek argi eta garbi azaltzen ez diren ordainagiriak, fakturak, tiketak...:

- Emailea: izena edo sozietatearen izena, eta NAN edo IFZ.
- Hartzailea: egoitza eta IFZ (dirulaguntza jaso duen erakundea izan behar da).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- BEZa: aplikatutako zerga tasa(k).

3. Programen aleak, non jasoko den Zigoitiko Udalaren babesak daukatela.

## 9. artikulua. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Eskaeren azterketa eta, hala badagokie, dirulaguntza ematea edo ezestea, haiek aurkezteko epea amaitutakoan egingo da, norgehiagoka araubidean.

1. Espedientea bideratzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa.

Espedientea bideratzeko eskumena daukan organoa Kultura arloko zinegotzi-ordezkaria izango da.

Ebazpena emateko eskumena alkatetzak dauka; aurretik ezinbestekoa da kontuen, bilkure-tako gaiak prestatzeko eta Gobernuaren kudeaketari buruzko informazioa emateko batzorde bereziak aldeko irizpena ematea.

2. Aztertzea eta ebaztea.

Espedientearen instrukzioan lan hauek egingo dira:

– Ebazpena emateko beharrezko jotzen diren txosten guztiak eskatu, besteak beste arloko teknikariei eta idazkari kontuhartzaileari.

– Eskaerak balioetsi, oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

Eskaerak aztertu ondoren, espedientea kontuen, bilkuretako gaiak prestatzeko eta Gobernuaren kudeaketari buruzko batzorde bereziari helaraziko zaio, eskaerei buruzko txostena egin dezan.

Espedientea eta kide anitzeko organoak egindako txostena aztertutakoan organo instrukto-reak behin betiko ebazpena proposatuko du: zer eskatzaileri eman behar zaien dirulaguntza, dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, ebazpenerako egin den ebaluazioa eta horretarako erabili diren irizpideak.

Alkatetzak dirulaguntzak emateko ebazpena emango du, arrazoiak azalduta.

Ebazpen horretan hauek azaldu behar dira gutxienez: dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Eskaerak ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da, aurkezteko epea bukatzen denetik; epe horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsizat jo behar dira.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, Administrazioarekiko Auzibideeta-rako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzie-tarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Horren aurretik, gainera, errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio alkatetzari, hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio proze-dura erkidearenak, 116. eta 117. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak finkatzen duen testua).

#### **10. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea**

Deialdiaren ebazpena hartutakoan ordainduko da dirulaguntza, eta ezin izango dira ez au-rretiko ez konturako ordainketak egin.

#### **11. artikulua. Lankidetzak eta babesak**

Erakunde onuradunek bere gain hartzen dute argi eta garbi erakusteko argitaratzen dituzten programa, kartel eta abarretan Zigoitiko Udalaren babesa dutela.

Gainera, beti erabili beharko dira bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, diruz lagun-dutako programa edo jardueraren publizitaterako egiten diren kartel, testu eta agirietan.

#### **12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Laguntza horiekin batera beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein dirulaguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

**13. artikulua. Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, kasuan kasuko informazio batzordeak eta dagokien teknikariek aurrez txostena eginda.

**14. artikulua. Legeria osagarria**

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, Zigoitiko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrean eta dirulaguntzen lege orokorrean eta horren arautegian xedatutakoa hartuko da kontuan.

Ondategi, 2016ko ekainaren 3a

*Alkatea*

*MIKEL LAS HERAS MTZ. DE LAPERA*